FAGOR fresaketa: programazioa G kodean (Gela Birtuala)

Nori zuzenduta

Fresaketa-prozesuetan pieza-programak egin nahi dituzten langileak, produkzio-, muntaketa- eta mantentze-arloetakoak edo beste arlo batzuetakoak, ezagutzak eta gaitasunak handitu nahi dituztenak.

Helburuak

- CNC programa erraz bat irakurtzea eta interpretatzea.
- CNC lengoaiaren aginduak programa batean duten funtzioarekin erlazionatzea, programazio-eskuliburua oinarri hartuta.
- Piezen programazioa CNC lengoaian egitea, beharrezko funtzioak aukeratuz.
- Programa simulagailuan edizio-moduluan editatzea, sintaxi-akatsak zuzenduz.
- Kontrolaren eragiketa-moduekin kontaktua izatea.

Edukiak

- Programazioaren hastapenak.
- Fresatzeko makinaren funtzio osagarriak.
- Zeroen lekualdaketen bidezko programazioa.
- Fresatzeko makinan mugimenduak programatzea (absolutuak eta inkrementalak).
- Fresatzeko makinan kotak programatzea.
- Kokatzeko eta mekanizatzeko mugimenduak.
- Erremintaren konpentsazio automatikoa fresaketan.
- Fresaketan ertzak automatikoki mekanizatzea.
- Azpirrutina estandarrak eta jauziak.
- Profil simetrikoak lortzea.
- Bi ibilbideren arteko lotura tangentziala fresaketan.
- Funtzio osagarriak.
- Mekanizazio-ziklo automatikoak fresatzeko makinan.

Aurrez jakin beharrekoak

- Oro har, fresaketa-prozesuei buruzko oinarrizko ezagutzak edo lan esperientzia.
- Fabrikazio-planoen interpretazioari buruzko oinarrizko ezagutzak.

Ikasleek Interneterako konexioa duen ekipo informatikoa eduki beharko dute.

Parte-hartzaileek lizentzia eskuratu ahal izango dute ikasturtean zehar

Izena emateko eta informazio gehiagorako

IMH: 943 74 82 66 www.imh.eus